

P. VIRGILIO MARON

Melibeo ta Titiroren arteko alkar-izketa ⁽¹⁾

GAYA

Cesar Augustok Filipos deitzen dioten izen aundiko gudaerasuan bereganatutako luak gudarien artean zabaldu zituan. Luak aien artean zeuden Virgiliok Cremona aldean beretzat ezagutzen zituanak.

Ayek Cesarrek, Mezenasen bitartekotasunari eskerak, Virgiori itzuli zizkion. Orduan Virgiliok alkarizketa egokienetako onezaz Cesarri bere biotzeko esker ona azaldu zion. Titiroren izenean azaltzen zuen bere zoriona; Melibeorenean Mantuataren zorigaitz negargarria. Bere asmoa gudagizonen erukia esnatzea da. Virgiliok garai artan 30 urte zituan. «Bizarra ebakitzean zuria erortzen zan aldian»... badio ere, zartzarogan bere buruaz baño geiago mende-bizitik irtetzen zuenaz oroitzen zan. Cesarren agiriko mesedeari agiriko eskerak eman nai izan zizkion. Cesarri Jaungoikoa deitzen dio, aunditzat baitzeukan.

ALKAR-IZKETA

Melibeok.—Ene Titiro, zu, pago mañdulpeko itzalean zabal-zabal eserita txistu meaz artzai abestiak jotzen ari zera: gu aberiaren baztar eta uzta maiteak

(1) Lantxo au, Euskaltzaindiak, Durango'ko euskalegunez izan zuan idazti-sariketan, elertil-sailean saritua izan zan,

utziar beartzen gaituzte erbesteruntz irtetzeaz: zuk, Titiro, ezeren buru austerikan gabe, itzalean lasai jařita (1) Amarillis liraiñaren izena arkaitzei esan erazten diezu.

Titirok.—Melibeo nere, Jainkoak guri ordu zoriontsu auek eman zizkigun, baita beti guzien ondo gogongařia izango det; aren opari lekua gure artaldeko arkume guriaren odolak maiz gořituko du; berak, nere ardiak nundik nai ta ni txistua ikasiaz gogoak agindu bezela ibiltzeko eskubidea eman baitziran.

Melibeok.—Opa dizut, baña aritzen naiz: jainbesterañokoa alda eze, aspaldi ontan emen dabilen naspila! Ona nerau: gaiso onek auntzak urutira daramazkit: eziñean dijoan onako au ere bai: joan dan arestian emen ur zapřasta-artean argitaratu dituan, artaldearen poza ziran, antxume bizkiak, Titiro enetxoa, ortxe arkaitz gořian utzi beař izan ditu. Amaika bider itxua egon ez banitza, lañoetati oñazkařak jotako arteak, aitzera eman zidan. Beste amaika bider beleak arte mařaskatuti aurrez esan zuan: Baña au onela izanik, Titiro, zure goiko Jainko ori zein dan azaldu zaiguzu.

Titirok.—Melibeo enetxoa, Erroma deritzaion uri ori, txoro onek, uste nizun, artzaiok erapeti kenduta arkume gurlak eraman oi ditugun Mantuaren antzea, zala. Arkumeak ardiaren ta zakurkumeak zakuraren antzekoak diran bezela, onela fikia ikusi ezkeru uste izate nuan aundia ezagutua zegola; baña Erroma onek, makalak sastrapa lakain artean bezela, beste uriez gairdik goyan bait dauka burua.

(1) Amarillis Efomaren eta Galatea Mantuaren ikufkunak dira,

Melibeok. — ¿Ta Eroma ikustera zerik eraman zaitu?

Titirok.—Nere buruaren jabe izan naiak, askatzeak: eta berak nekez abare, bizaña moztutzean zuriya erortzen zitzaidan garaian, begi efukitsuaz begiratu zidan. Begiratu ta andikan laster etori; Galateak utzi ta Amarilisek aritu ezkerro. Aitortu bear det Galatean mendian bizi nintzan garayan ez nuala nere buruaren jabe izango nitzanikan uste, ez ta txanpon bat zaintzen lanik ere. Arkume asko iltzeko nere eskortati irtenagatikan, ta gazta guria ugari esker gabeko uri artarako estutzen banuan ere, gitxitan txeruntz nekañen diruak beartzen zian eskua.

Melibeok.—¡Ene Amarilis! zuk goibel eta pozikan gabe zeruei deitziak bai aritzen nituala. ¡Ai ene, Titiro sagareti ale oriak zintzilik zeuzkana ez egon emen!, uruti baitzebiñen: Titiro, ituriak berak, zugaitz mardulak berak, kimu lakañak ganañoko guziak deika zenduzkatzun ba.

Titirok.—¿Zer egingo nuan? ¿Mende bizitik irtezeko beste biderik ez bainun?: eta beste inun nere alde egingo zuan jaunikan ez nuan ba arkitzen. Ene Melibeo, urtean bi seiko aldiz opari tokia kea deriela eukitzen dituan gazte ura ementxe zorionean begiz ikusi nuen. Gazte ari lendabiziko aldiz, eskabidea egitean, entzun nion: ez estutu, uztañtu oi bezela idiak eta nai dezun alderdira abelgoñiak laratu.

Melibeok.—¿Zorioneko aitona! ¿beraz luñ guziak ari ta zingira biurtzen badira ere, geiagon bear etzerala, zereak ziñuzen guziekin, geratzen zera? ¿Beraz umedun dauden abereai belar gaiztoak ez die gaitzikan egingo? ¿Ezta auzoko taldearen gaitzak umatuak

kutsutuko ere? ¡Zorioneko aitona!, emen ondo dakizkitzun erēka-ertz ta iturri opaldu-tartean aize otzila itzalpean artzeko baitzaude. Batetik zere baztāren eritzeko sasia lore mami gozoa janda dauden erleak beren dundurio meaz maiz loa ekañiko dizute. Bestetik aizearen egoetan goiko arñaitzeta egurñiak abes-
tiak bialduko baitizkitzu. Ostera, maitetxo dituzun etxe usoak eta zumañ gañetikan urñxapalak aizeari urñaka eztira isilduko.

Titirok.—Aren oroipena gure burutik joan ditekean bañio lenago, oreinak goiko aize gañean lañatuko dira, itxasoak bere arñiak lañu goñian baztāra jaurtikiko ditu lenago, bi ibaietako urak beriko bidetik itzuli ta urñitiko (1) Partuak Saonako uretik eta Alemanak Tigristik edango du.

Melibeok.—Gu bada emetikan joan-beañean arñituko gera, batzuek Afrika erēa, besteak Escitiara, Cretako Oasis ibai azkañaren erñzera ta beste luñetati aldenduta dauden Bretañetara. Baliteke egunen batean, urte batzun buruan nere bakaldeñi aldera itzul-
tzean, jayoteria ta zotalez estalitako boñda arñotea ikusi ta arñtzea... Biotz gabeko gudaria masti gazte antolatuañen jabe izango ote da?... Arñotzak, eldutako uztak jasoko ote ditu? Geren arteko ikusi ezinñak ona zertarañio ekañi gaituen. ¡Begira zeinentzat luñak urñatu ta aziak erein genituen! ¡Nekatu ari Melibeo; udariak txertatu ta mastiak txuxendu itzak! Aldi bateko nere zorioneko taldea, zorioneko auntzak, joan, joan. Gaurñdanik auñera etzaituztet leize-atsegiñean etzinda nagoan tokitik, arkaitz zoñotzean zin-

(1) Partuak Asian arñitzen dira. Saona Prantzian dago, Tigris Mesopotamian.

tzilik zaudetela urutira ikusiko. Itz neuriturik ez det
geyago abestuko, ni artzai naizala auntzak usobelar
ta intxus mikatzikan ez dute bilduko.

Titirok.—Nola nai ere gauñ gabekoagatik nerekin
emen atsedean zindezke, biok orbel guri-gañean etzin-
go gera: ez dago sagar umatu-goserik, gaztaña eldu
elduak ugari ta esnea estutuz egindako naikoa gazta
badifugu. Bai ta urutietara begira; etxeetako kebide
luzeai kea darie ta mendi luzeetati itzalik aundienak
zintzilik daude.

Luzio AÑEGI.
